

# ESKUFEM

## ESKUMUTURREKO FEMINISTA

*Ximen enpresaren eskutik*



AINTZANE AGUIRRE  
AINHOA SEGUROLA  
OLAIA UGARTE  
ALAIA USABIAGA

- OIANGUREN BHI -

**Ximen** izeneko gure enpresak, *Eskufem* izeneko *eskumuturreko feminista* sortu du.

*Eskufem-ek* eta honek eskaintzen dituen zerbitzuek, gure bezeroari kezka edo arazo potoloa duen horri aurre egiten lagundu nahi dio, emakumeek mundu-mailan eta mila testuingurutan senti dezaketen segurtasun falta eta beldurrari. Beraz, ezin uka liteke, gure eskaintza edo proposamenaren balio kualitatiboa dela ondoren azalduko dugun moduan.

## BALOREZKO PROPOSAMENAK

Guk sortutako Eskufem *eskumuturreko feministaren* balioen artean ugari dira gainontzeko antzeko produktuetatik bereizten gaituztenak:

Balioetako bat **berritasuna** izango litzateke; produktuaren diseinua eta aplikazioak berrikuntza teknologikoa izan ez arren, gehitu dizkiogun erabilera, zerbitzu eta prestazioak nobedade bihurtuko dute produktua.

Beste elementuetako bat **prestazioak** izango lirateke, esate baterako:

- *Mapsfem*: erabiltzaileari gune gatazkatsuak adieraziko dizkio bere Maps aplikazioan. Gune gatazkatsuak zein diren eta zein ezaugarri dituzten ezartzeko orduan *Col.lectiu Punt 6<sup>1</sup>* kooperatiban hirigintza feminista<sup>2</sup> baterako ezartzen dituen bost oinarriak hartu ditugu irizpide. Gure bezeroek ere parte hartu dezakete maparen osaketan ezagutzen dituzten guneen baloraziorako osatuko dugun galdetegi bati erantzunez.
- *Egufem*: formakuntza, hitzaldi, tailer... ezberdinen inguruko datak eta informazioa eskaintzen du.
- Inguruko laguntza taldeak edo genero berdintasunean lan egiten duten elkarte edo instituzioak identifikatzen eta kokatzen laguntzen du.
- Une arriskutsuetan grabatzeko aukera eskaintzen du. Kasu honetan, Ertzainekin harremanetan jarri gara, honako hau legala den edo ez jakiteko. Erantzuna baiezkoa izan da, baina horretarako bi baldintza bete behar omen dira; alde batetik, solaskideetako batek elkarrizketa hori grabatu behar du (ez da gauza bera beste baten elkarrizketa grabatzea edo beste batekin elkarrizketa grabatzea), eta, bestetik, grabazioak ezin dio pertsona horren bizitza pertsonalari edo intimitateari eragin.

---

<sup>1</sup> <http://www.punt6.org/news-2/>

<sup>2</sup> <https://www.youtube.com/watch?v=dI4TOCPMMBA>

Bi baldintza horiek betetzen badira, probak baliozkotzat joko lirateke eraso baten aurrean. Azkenik, aipatu behar da arau horiek Espainiako Konstituzioan araututa daudela.

- Egunaren amaieran, egunean zehar gertatuko edo norberri garrantzitsua iruditzen zaion zerbait aipatzeko aukera eskeintzen du: jakinarazpen bat agertuko da *Eskufem eskumuturreko feministan “¿Gaurko egunaz zerbait komentatu nahi duzu?”*. Honek gure produktuaren inguruan komunitate baten saretzea ahalbidetuko du, sare sozial mugatu baten sorrera sustatuz.

*Eskufem eskumuturreko feministaren pertsonalizazioari* dagokionez, , produktu hau, norberaren, hau da, bezero bakoitzaren ingurura egokituko da eta bezero bakoitzak aukeratu ahal izango du honako honen diseinua eskaintzen zaizkion modelo ezberdinak egongo baitira.

Gure produktuaren beste baloretako bat **lana erraztearena** izango litzateke, kasu honetan, bezeroari; arrisku edo eraso matxista baten aurrean babesa emanaz eta unean bertan Ertzainei biktimaren ubikazioa bidaliz. Gainera, lehen esan bezala, erasotzailea identifikatu eta epaiketa posible baterako frogak lortzen laguntzen du grabazioen bitartez.

Horrez gain, *eskumuturreko feministak*, bezeroari, gai honi lotuta, segurtasuna eta ezagutzak lortzeko tailer, hitzaldi, formakuntza...desberdinen inguruko informazioa eskainiko dio. Beraz, honekin guztiarekin, bezeroari bere **arriskuak murrizteko** aukera eskeiniko diogu eta hau ere izango litzateke gure produktuaren elementua.

Lehen aipatu dugun kontzeptu bat ere hartuko dugu elementutzat, **diseinua** alegia. Hainbat diseinu desberdin egongo dira; testura, material eta kolore ezberdineko hainbat kate-modelo esate baterako. Bestalde, pantailari dagokionez, ukipen-pantailaduna izan daiteke eta tamaina eta forma ezberdinetakoak, norberaren gustoetara ahalik eta gehien egokitu ahal izateko.

Elkarri lotzen dizkiogun beste bi balio aurkitu ditzakegu gure produktuaren kasuan: **prezioa eta eskuragarritasuna**.

Eskuragarritasunari dagokionez, gure enpresak, hainbat erakunde publikori (Emakunde eta analogoak, Udaletxei, Emakumeen Etxeak, etab.) salduko dizkio pultsera feminista hauek, horrela bezeroak espazio hauetan eskuratu ahal izango du produktua, gehinetan, gainera, prezio merkeagoan erakunde publiko hauen bitartekaritza dela eta. Honako honek, erosleei segurtasuna bermatzen die; arrisku baloreak asetuz, iraupena eta funtzionamendua eraginkorrak izanez eta auto-errebisioak eskainiz, funtzionamendua egokia dela segurtatzeko. Bitartekaritza publikoa duen produktua oinarritzkoa eta diseinu pertsonalizaturik gabekoa izango da, gure modelo eskuragarriena hain zuzen.

Hala eta guztiz ere, merkatu-sisteman ere txertatuko da, diseinu eta kate mota desberdinak egongo dira Amazon, Eroski, denda txikiak eta halakoetan eskuratu ahal izango

dira besteak beste (beti ere genero-baldintzak betetzen baditu erosleak merkatu segmentari buruzko atalean zehaztuko duguna).

Prezioa berriz, aipatutako erakunde publiko hauentzako ezarriko dugu eta lehen aipatu bezala, diseinuak desberdinak izango direnez, diseinuaren arabera prezioa ere aldatu egingo da.

Guk ezarritako prezioa honakoa izango litzateke diseinuaren arabera:

- Oinarrizko eskumuturrekoa: 90-120 euro
- Luxuzko eskumuturrekoa: 120-200 euro

Atal honekin amaitzeko aipatu nahi digu , *eskumuturreko feminista egunerokotasunean* erabiltzeko prestatuta dagoela, edozein lekura eramanez eta inguruko arretarik deitu gabe. Honako hau ere beste elementuetako bat izango litzateke, diskrezioa.